


Ingurumen kimikako eta osasuneko goi mailako teknikaria



Ingurumen kimikako eta osasuneko goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Ingurumen-osasuna eta elikagaien segurtasuna.

- Ingurumen-osasuneko unitate bat kudeatzea.
- Herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea, uraren erabilerari eta kontsumoari lotuta.
- Herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea, hondakin solidoen ekoizpenarekin eta kudeaketarekin lotuta.
- Eraikitako inguruneari lotutako herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea.
- Biztanleriak elikagaiekin lotuta dituen osasun-arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea.
- Kutsadura atmosferikoarekin lotutako herritarren osasunerako arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko eragiketa teknikoak egitea.
- Bektoreen prebentzio eta kontrol integralerako eragiketa teknikoak egitea, osasun publikoaren testuinguruan, produktu kimiko bioziden eta fitosanitarioen erabilera kudeatzea barne.
- Pertsonen eta komunitatearen osasuna sustatzea, osasun publikoko hezkuntza-jardueren bidez.

Ingurumen-kudeaketa.

- Erakundearen Ingurumena Kudeatzeko Sistemari (IKS) buruzko arau-dokumentazioa kudeatzea.
- Erakundearen ingurumen-alderdiak dokumentatzea.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) abian jartzea eta mantentzea.
- Ingurumen-arriskuak ebaluatzea, istripuak prebenitzeko.

Organismo kaltegarriak kontrolatzeko zerbitzuen kudeaketa.

- Organismo kaltegarriak kontrolatzeko plana ezartzea, abiapuntuko egoerara egokituta, eta plana nola gauzatzen den gainbegiratzea.

Airearen kutsadura kontrolatzea.

- Airearen kutsadura neurtzeko eta laginak hartzeko eragiketak egitea.

Segurtasuna eta ingurumena

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Zure jarduera profesionala osasun-arloan garatuko duzu, osasun publikoaren edo pribatuaren arloan, kutsatzaileak izan daitezkeen ekoizpen-sektoreetan eta nazioko, autonomia-erkidegoko eta tokiko administrazioan, osasunarekin eta/edo ingurumenarekin lotutako zerbitzuetan. Osasun-ikuskaritzako taldeetan, analisi-laborategietan, ikerketa-zentroetan, unibertsitate-zentroetan, nekazaritza-ustiattegietan eta ingurumena kontrolatzeko zerbitzu-enpresetan parte har dezakezu. Besteren kontura lan egiten duzunean, hierarkikoki eta funtzionalki goragoko ardardun baten mende egongo zara, eta, hala badagokio, beste sail batzuetako arduradunekin lankidetzan arituko zara. Osasunaren arloan lan egiten duzunean, administrazio eskudunak arautuko du zure lanbide-jarduera.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Ingurumen-kudeaketako teknikaria.
- Ingurumen-kudeaketako sistemen koordinatzailea.
- Ingurumen-jardueren programatzailea.
- Ingurumen-dokumentalista.
- Osasun-kontrolako teknikaria (elikagaiak, urak, atmosfera, hondakinak).
- Kutsadura atmosferikoa kontrolatzeko teknikaria.
- Kutsadura akustikoa kontrolatzeko teknikaria.
- Organismo kaltegarriak kontrolatzeko teknikaria.
- Izurriteak kontrolatzeko teknikaria hiri-ingurunean eta lotutako natura-ingurunean.
- Produktu biozida eta fitosanitarioei buruzko informazioaren komertziala.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Osasunerako eta ingurumenerako hezkuntza.
- Uren kontrola.
- Eraikitako ingurunearen osasuna eta arriskuak.
- Elikagaien kontrola eta segurtasuna.
- Ingurumen-osasuneko unitatea.
- Ingelesa I.
- Ingurumen-kudeaketako sistemak.
- Hondakinen kontrola.
- Ingurumenaren eta atmosferaren kutsadura.
- Organismo kaltegarriak kontrolatzea.
- Enpresa eta ekimena.
- Lanerako prestatu eta orientatzea.
- Kimikako eta ingurumen-osasuneko proiektua.
- Lantokiko prestakuntza.

+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional